

## OINARRIAK

### “DASTATU GETXO” PINTXO IBILBIDEAREN VI. EDIZIOA

Getxoko Udalaren babesas jaso du “Dastatu Getxo” Pintxo Ibilbidearen VI. edizioak eta, proiektuan parte hartzen duten ostalaritza-enpresak bultzatzea eta horien bezeroen konfiantza eta fideltasuna saritzea dauka helburu.

#### 1. PARTE HARTZEN DUTEN ENPRESAK:

- Ekimenaren kartela erakusteagatik eta ekimenaren beste euskarrietan agertzeagatik identifikatu ahal izango dira.
- Ekimenean parte hartzen duten enpresen zerrenda eta horiek proiekturako jarri dituzten pintxoak webgune honetan argitaratuko dira: [www.getxoimpresa.com/actividades/ruta-de-pintxos-vi-saborea-getxo/](http://www.getxoimpresa.com/actividades/ruta-de-pintxos-vi-saborea-getxo/).

#### 2. SARIAK:

- Gau bateko egonaldia, bi pertsonentzat, gosariarekin eta zirkuitu termal eta ludikoarekin (80 minutu).
- Menua eta zirkuitu termal eta ludikoa, bi pertsonentzat (80 minutu)
- 5 zirkuitu termal eta ludiko, bakoitza bi pertsonentzat (80 minutu)

Sariak La Hermidako bainuetxerako dira.

#### 3. ENPRESEK BEZEROEI KARTILLAK EMATEA

- Ekainaren 2tik 5era, eta 9tik 12ra (biak barne), ekimenean parte hartzen duten enpresek, bezeroek proiektuari lotutako pintxoak kontsumitzean, zigilua daukaten kartillak emango dizkiete, edo bestela, beraiek aurkeztutakoak zigilatuko dituzte.
- Zazpi sarien zozketan parte hartu ahal izateko, bezeroek proposatutako pintxo-ibilbideak egin eta kartilletan zigiluak pilatu eta harremanetarako datuak irakurtzeko moduan bete beharko dituzte. Ekimenean parte hartzen duten establezimenduetan horretarako jarriko diren kutxetan sartu beharko dituzte kartillak ekainaren 13a baino lehen.

#### 4. SARITUTAKO KARTILLEN ETA SARITUTAKOEN HAUTAKETA

- Zozketa zorizkoa izango da erabat, eta kartillak kutxetan sartzen dituzten bezeroen artean egingo da ekainaren 16an.
- Kartilla zozketan onartzeko, honako baldintzak bete beharko ditu:
  - Kartillan bezeroaren harremanetarako datuak adieraziko dira argi eta garbi.
  - Pintxo ibilbidea egin duten kartillen artean egingo da zozketa, edo bestela, establezimendu desberdinetako zigilu gehien daukaten artean. Sari guztiek izango dute irabazlea.
  - Pertsona bakoitzeko sari bat emango da, eta pertsona berari dagozkion 2 txartel aterako balira, lehenengoak bakarrik balioko du.
- Saritutako zazpi pertsonen izenak ekainaren 17an argitaratuko dira [www.getxoimpresa.com](http://www.getxoimpresa.com) webgunean, getxoimpresa facebook-profilean eta getxo\_enpresa twitter-profilean.

#### 5. SARIEN BANAKETA

- Sarien banaketa ekainaren 20an egingo da (aurreikusitako eguna) elkartearen egoitzan. Bertan izango dira, iragarritakoaren arabera, babesas eman duen erakundea, enpresa kolaboratzaileak eta erakunde antolatzailea, Getxo Enpresa.
- Sari bakoitza jasotzeko, ezinbestekoa da saritutako pertsonak, edo hark izendatuko beste batek, saria duen kartilla trukatzeko eta sari hori jasotzeko adierazten zaizkion egun, ordu eta tokian azaltzea. Etorri ezin izatekotan, saritutako hurrengo pertsona aukeratuko da, erreserba gisa adierazitakoa.

*“Dastatu Getxo” pintxo ibilbidearen VI. edizioan parte hartzeak goian adierazitako oinarri guztiak erabat onartzea dakar. Gainera, Getxo Enpresak, erakunde antolatzailea izanik, oinarri hauetan aurreikusi gabeko edozein gairi buruz erabakia hartzeko eskubidea gordetzen du.*

